

Asisko gutuna

2013ko Maiatza. 3. printzipioa. Eguneroko bizimodua: kanporantz, elkartasuna

55. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Aspalditxotik esaten ari zaizkigu amets globalak, gizarte osoari zuzenduak, erantzun erabatekoak dituztenak krisian daudela, osotasun horretan pertsonaren berezitasuna galdu egiten delako. Baina, agian, ez dugu ikasi erabat geure egunekoari heltzen ere, gure geurekotasuna egiaz bizitzen. Hori izan daiteke besteen egia bizitzera eta gure espiritualtasuna txikitasunean aurkitzera eraman gaitzakeen bidea.

Gogoetarako gaia

Itxaropena gauza txikietan

Bizi dugun gizarte-giroan badirudi, irentsi egiten gaituela etengabe handia denak. Dirudienez gertaera handiek, berri sonatuek... bakarrik dira garrantzitsuak.

Gure ilusio eta esperoetan ere aldaketa handiak nahi ditugu sarriro gizartean, Elizan eta gu geugan.

Eredu berriak, errealitatetik urrunduak, planteatzen ditugu geure bizitzan eta munduan, eta nola desio horiek ez diren ia inoiz betetzen, porrot eginda eta asebate gabe gelditzen zaigu barrena egiten dugunarekin.

Geure hobetzeko esperoak ez dira burutu ohi, eta mundua beste begiz ikusteko behar dugun aldaketa horretan joan gaitezke esperantza galduz. Eta entzuten dugu esaten: - "Nik egin dut egin behar nuen guztia, ez dut jarraitzeko gogorik, orain besteie dagokie...".

Besteengana urreratzen garenean ere handikiro egitea gustatzen zaigu, haien arazo guztiak konpondu nahi ditugu. Bai ederki hori egin ahal bagenu!, baina ia beti ezinezkoa da aldaketa hori

guk pentsatu bezala ematea, eta porrot-sentsazioa izan daiteke eskerga.

Ahaztu egiten dugu zein inportanteak diren gure baitan eta inguruan ematen diren mugimendu txikiak, gure bizitza aldarazten duten horiek.

Ez diogu baliorik ematen irribarreari, begiradari, txerari, txikia izanik frankotan sumatu gabe pasatzen den eta hutsal dirudien guztiari, baina hain inportantea denari, hori gabe bizi ezinik geldituko ginatkeelako.

Berriro behar dugu aurkitu mundua ikusiz harrituta gelditzen den hauraren begirada, aitona-amonen begirada eskertua, pertsona maite baten fereka berreskuratua.

Jainkoaren Erreinua txiki denetik, mostaza aletik, egiten den bezala, guk ere pertsonen gauza txiki eta baliotsuetan, besteengana urreratzen laguntzen digutenetan, behar dugu itxaropena berreskuratu, horrela mundua zuzenagoa eta solidarioagoa eginez.

Ebanjelioko pasartea: Mt 13,31-33

Jesusek beste parabola hau kontatu zien: «Jainkoaren erregetza gizon batek soroan ereiten duen mostaza-haziaren antzekoa da. Hazi guztietan txikiena da; baina hazten denean, beste barazki guztiak baino handiago bihurtzen da eta zuhaitz egiten, txoriek etorri eta adarretan habiak egiteko moduko zuhaitza». Beste parabola bat ere esan zien: «Jainkoaren erregetza legamiaren antzekoa da: emakume batek anega bat irinetan nahasten du, eta oraldi guztia harrotzen da».

Frantziskotar espiritualtasuna

«Bizimodu hau hartzeko asmoz zetozenek eduki zezaketen guztia behartsuei banatzen zieten, eta honako honekin kontentatzen ziren: tunika bakar bat, barru eta kanpo adabatua ... Eta eskolagabeak ginen eta guztien menpeko. Nik neure eskuz lan egiten nuen, eta egin nahi dut; eta tinko nahi dut, gainerako anaia guztiek ere lan egin dezatela lanbide egoki batean ... Eta Jaunak agertu zidan, agur gisa hau esateko: ‘ Bakea dizula Jaunak ’» (Test 16-23).

Frantziskok bizitza xumea amesten du, Erreinuko txikien bizitza xumea, lan apalak eginez, sona eta osperik gabeak, aldaketa ikusgarriarik eragiten ez dutenak eta sari handirik gabekoak. Bera horrelaxe egon zen munduan, erne den Erreinu-zatitxo bat bezala, presentzia txeratsu gisa, bertan beste Norbaiten presentzia sumatu ahal dadin eta Haren bakea sentitu.

Berak txikia den hartatik egon nahi du jendearen artean; baina txiki hori argiz eta Jainkoz betea bizituz. Anaia batekin aurkitze hutsa festa gisa kontatzen du. Ebanjelioa bizitzea eguneroko egiteetan gauzatzen du, anaia larrituarenganako arretan, bidean aurkitzen duen pobreakeriko arretan. Bere sekretua ez dago gauza handiak egin izanean, baizik eta xume dena halako indarrez eta zentzuz bizitzean.

Otoitza

Mila bider, Adiskide eta Jaun,
egiten zara Presentzia txeratsu,
Bide eta Misterio, Maisu eta Maitasun.
Hainbeste modutan egiten zara presentzia!
Hainbeste isilunetan zara mintzo!
Hainbeste hitzetan duzu konfiantza ematen!
Hainbeste eginahaleko arduratan zaude zain!
Xume diren hainbatetan zara ezkututzen!
Mila bider
itxaropenik gabeko nire begiek
ez dute ikusten nire ondolik zoazela,
loturak hautsiz,
proiektuak aldatuz, joranak argituz,
indar emanez aurpegira txeraz begiratzeko
hainbat senide gertuko eta urrutikoei,
zeintzuk diren zure igarotzearen
zehir-presentzia eta oinatz.
Historiaren eta nire urteen Jauna,
nire gaurko bizitzan zure presentziak

eguneroko arropak jantzen ditu.

Ezagunak dituzu nire ametsak, nire argi-ilunak.
Ezagutzen nauzu eta badakizu
kosta egiten zaidala zu ikustea
ohiko <<urrats-urratsean>> eta
<<egunean egunekoan>>,
distiratsu ez denean eta mugatuan.
Zure aurpegiaren bila nabil, nire urteen Jauna!
Betiko lagun, nire Jainko buztin-langile,
egin nauzu zu bezala lurrontzi xume,
isiltasun eta bake,
dohaintasun emana.
Ene bizitzako Jaun, adiskide, senide,
egin nauzu zu bezala eguneroko keinu,
fede, entzute, eskaintza eta besarkadazko keinu.
Ene Jainko laztana, ene Jainko adiskide,
mila esker ondolik zoazelako.

Gutuneko azken hitzak

“Pertsona baten handitasuna une berezietan azal daiteke, baina egunerokotasunean mamitzen da”.

2013ko maiatzeko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate maiatzeko erreferentzia guztiak:

1 Mk 13,54-58	8 Jn 16, 12-15	15 Jn 17,11b-19	22 Mk 9, 38-40	29 Mk 10, 32-45
2 Jn 15, 9-11	9 Jn 16, 16-20	16 Jn 17, 20-26	23 Lk 22,14-20	30 Mk 10, 46-52
3.Jn 14, 6-14	10 Jn 16,20-23a	17 Jn 21, 15-19	24 Mk 10, 1-12	31 Lk 1, 39-56
4 Jn 15, 18-21	11 Jn 16, 23b-28	18 Jn 21,20-25	25 Mk 10,13-16	
5 Jn 14, 23-29	12 Lk 24, 46-53	19 Jn 14,15-16.23b-26	26 Jn 16,12-15	
6 Jn 15,26-16,4a	13 Jn 16, 29-33	20 Mk 9, 14-29	27 Mk 10,17-27	
7 Jn 16, 5-11	14 Jn 15, 9-17	21 Mk 9, 30-37	28 Mk 10, 28-31	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org




Asis Sarea

646 21 48 96